volverá a ser así». Dolorosa, sí, a veces, la sensación de la añoranza del tiempo pasado.

Pero no vamos a caer en la tentación, sin un mayor examen, de decir que cualquier tiempo pasado fue mejor. Pues ahí está también, por ejemplo, el comentario del mismo Sabin Olascoaga, refiriéndose a un tiempo anterior: «Estuve cuatro meses en una banda militar del PNV, en Gernika. Allí me pilló el bombardeo y desde el río, donde estuve metido tres horas, viví todo el proceso. Fue algo horrible. Todo incendiado, deshecho...». Se refiere, claro está, al tiempo de la guerra civil.

Malos tiempos fueron aquellos, sí. «Los felices años veinte» dieron paso a los tremendos años treinta. Como si obligadamente a un tiempo calmo tuviera que sucederle otro dañoso, sin remisión. Justo en 1930 surgía el primer número de la revista OARSO. Pero pronto se sumía en el silencio, como tantas otras voces. En ese trágico silencio que impone toda guerra cuando las armas descansan entre batalla y batalla. El escritor José de Arteche expresa ese inquietante silencio en ese Diario que escribió, en las condiciones más difíciles, y que fue publicado con el desazonante título de «El abrazo de los muertos», fechado un día que, circunstancialmente, estaba en nuestro pueblo: «Rentería, 9 de noviembre. 1936. ¡Qué soledad más terrible la que se siente en este pueblo por las noches! De aquí han debido marcharse casi todos. Parece que no vive nadie». Toda una exclamación expresada desde el temor, quizá, desde el mismísimo miedo.

Los años treinta, los tremendos años treinta, dieron luego paso a la década de los no menos tremendos cuarenta. Tremendos, también, en cuanto que en Europa todavía se batían el cobre a base de fino, con la consabida repercusión en nuestro País.

Después de dos décadas de tal calibre, era imposible que la situación fuera a peor. Así que el *bonjour tristesse* inicial dio lugar, en el transcurso de los cincuenta, a *un certain sourire* acompañado de las irónicas canciones de los Xey. «No hay novedad, señora baronesa». Por otra parte, José de Arteche publicaba obras como «Lope de Aguirre, traidor», «Saint-Cyran», entre otras, además de colaboraciones en la prensa diaria. También los años cincuenta fueron años de juventud. Bueno, quiero decir que, por aquel tiempo, mis amigos eran jóvenes (yo también, claro; o sea, todavía eso de «empezar a ser mayores» estaba, así, como lejano; la verdad es que ni nos lo planteábamos). Y las chicas, ¡bueno!, las chicas estaban estupendas. ¡Verdaderamente estupendas! Siempre con una cierta sonrisa reluciendo en sus boquitas pintadas de rojo carmesí. Cuando llegaban aquellos veranos (y digo así, «aquellos veranos», porque eran totalmente distintos a los de ahora) y se vestían con sus blusitas, las sayas almidonadas bajo vaporosos vestidos, de mucho vuelo, sucedía que las calles se adornaban de fiesta y, de algún modo, siempre lucía el sol.

Justo en 1958 sale de nuevo OARSO, y entre los colaboradores que prestan su pluma a la revista, están José de Arteche y Sabin Olascoaga. José estuvo en estas páginas hasta que, en setiembre de 1971, su corazón no pudo proseguir a la intención que, el bueno de Joxé, siempre ponía en la tarea de escribir.

Ahora, un año más, estamos con la Revista en las manos marcando otro eslabón en la cadena del tiempo. No sé si Sabin enviará alguna colaboración. Todavía tiene muchas vivencias para contar, si la dolorosa nostalgia no le impide. Y es que sucede que, al margen de las circunstancias que a una persona le toca vivir, circunstancias penosas o felices, está el hecho de haber sido joven (con esto no quiero decir que los que estrenamos nuestra juventud en los años cincuenta, ahora nos estemos haciendo viejos, en todo caso, como dice mi amigo, nos estamos haciendo mayores. ¡Qué majo es el muchacho!. Por mi amigo, digo). Y más que las situaciones vividas lo que se añora es ese estado del ser joven, ese momento estelar que siempre es, de algún modo para todos, con toda la carga de ilusión que conlleva. Se añora por lo que fue, y muchas veces, también, por lo que no fue... y pudo haber sido. De cualquier forma, OARSO, cada vez, cada año, nos hace evidente un mayor distanciamiento de aquel tiempo.

# ERRETAGOARDIAN

MIKEL UGALDE

Honako aurtengo aleak gure herriko gerra garaiko gorabeherak ditu aipagai. Izan ere errenteriar gehienontzat azken anai arteko gerratea historia da, gure herriaren geroa markatu izan duen gertaera mingotsa, baina era berean, historia ere bai. Eta denborak berekin eskaintzen duen distantziak gauzak bere onera ekartzen ditu, eta alde horretatik historiaren ikuspegitik gauzak aztertzea onuragarri izango zaigu.

Nik neuk, ordea, ez nuen gerra bizi izan, ez nuen garai hartako Errenteriarik ezagutu, eta ez dezaket alde horretatik aportazio haundiegirik egin.

Halaz ere frenteko borrokak amaitu eta gero, garailearen eraginez ezarritako legez eta eginduz, herrigiroan, nolabaiteko erretagoardian gure belaunaldiak bizi izandako zenbait oroitzapenen aipamena baino ez dut egingo.

## MORRONTZAPEAN

Behin batean apaiz, apaizgai eta fraile koadrila bat bildu zen gure herriaren egoera aztertzeko, pastoralgintza egoera hartan nola bideratu behar zen jakiteko. Garai horretantxe, ETAk borroka harmatuaren bibeetatik zenbait pausu emanak zituen, eta bilera haietan bide hori, kristau moraltasunaren ikuspegitik zilegi ote zenentz aztertzeari ekin zitzaion. Bertako partaide baten hitzak gogoan jaso nituen. «Morala den ala ez, zilegi izan ez izan,—zioen—, ez dago hor gakoa, Borroka irabaztean dago gakoa. Irabazten bada guztia ontzat emana eta bedeinkatua izango da baina deskuido santuan galtzen baldin bada, erruki orduan, guztia bortizki kondenatua izango bait da».

Azken gerrateko garailearekin beste horrenbeste gertatzen zela esan daiteke. Legez ezarritako gobernuaren aurka oldartu eta gero, militar talde hark, garaipena berekin zuen heinean, bedeinkapenak eta oniritziak jaso zituen. Guztia ongi loturik zegoen, eta, gerrak amaitu eta gero ere, haren ondorioak jarraitu zuen. Bazuen morroi leialik, han eta hemen, guztia morrontzapean jartzen laguntzen zionik. Eta alde honetatik, gure garaiko ikasleen eskola esperientzia zenbait baino ez dut aipatuko.

## ESKOLAK ERE BERE ESANETARA

Garai hartan bi eskola klase baino ez zegoen. Eskola publikoak, «nazionalak» alde batetik eta pribatuak, fraile eta mojen eskutan zeudenak, bestetik.

Estaduaren eskoletan irakasteko tituluaren ala jakintza maila egokien jabe izatea ez zen nahiko, leialtasunaren ezaugarria garbia behar zen. Irakasle zenbait komisario politiko bilakatu zen, eta garaileak eskoletan egiten zenaz lasai egon zitezkeen.

Eskola pribatuei dagokienez, diferentziak ere egon direla pentsatzekoa da, errejimenaren aurrean denek jarrera berdina azaldu zutenik esatea ez bait litzateke egoki izango. Zenbait erlijioso,



**LOS PODERES**

El poder lo tiene el que puede y no el que quiere. Y sólo puede, el que tiene condiciones para mandar y autoridad para ser obedecido.

Los poderes son los atributos de la autoridad.

Quien tiene los poderes dicta la ley, prescribe su cumplimiento, ordena la justicia, crea los cargos públicos y nombra a las personas que deben desempeñarlos.

**Quien tiene la responsabilidad debe tener los poderes.**

Por esta razón es el Estado quien debe tener los poderes, porque él tiene la responsabilidad de los negocios públicos y del bienestar nacional.

Nosotros, los subordinados, no tenemos más misión que obedecer.

Debemos obedecer sin discutir.

Quien manda sabe lo que hace y por qué lo hace.

Es más dificil mandar que obedecer.

El que obedece no se equivoca nunca.

20

Los españoles tenemos la obligación de acostumbrarnos a la santa obediencia. Nada de murmuraciones, de reservas ni discusiones. ¿Nos manda quien sabe y quien puede? ¡A cumplir fielmente lo mandado! Esta ha de ser nuestra consigna.

¿Y quién juzga al que tiene el máximo poder? Dios y la Historia. A Uno y otra dará cuenta. Lo demás no es de nuestra incumbencia.





**En mi casa manda mi padre; en la escuela, el maestro; en el pueblo, el alcalde; en la provincia, el gobernador; en España, el Caudillo. Este manda en todos, porque tiene la responsabilidad de todos. Obedezcámosle para que haga a España feliz.**

21

Garaiko oinarrizko irakaskuntzarako testu baten orrialde bat: «Así quiero ser (El niño del nuevo Estado). Lecturas cívicas». Hijos de Santiago Rodríguez. Burgos, 1940. (Ilustraciones de Fernando Marco).

hainbat herritarren bideari jarraiki, alde egin beharrean izan zen, garailearen kristoari jarraitzen ez zionak bereak eta bi hartzen bait zituen. Gure eskola esperientzia, ordea, bestelakoa izan da.

## FRAILEAK

Diogun aldez aurretik Errenterian hainbat eta hainbat urtetan fraileek eginiko lana bikaina izan dela, istudioaren alorrean bertan prestatutako ikasleak noranahira joateko ezeren lotsakizunik gabe erantzuteko moduan prestatuak egon izan direla, eskola lanetan bertan sartu izan dituzten orduak mugarik gabeak izan direla. Ikaslez gainezka hornitutako geletan ere irakaskuntza lana taxuz burutzen zuten. Alde honetatik gure esker ona, besterik ez bait diegu eskainiko, ongi merezia dute.

Beste zenbait arlotan, ordea, ez dut uste egiazko heziera eskakizunaren bideetatik abiatu zirenik, eta beharbada hau dela eta fraileen eta herritarren arteko harremanak etenda egon izan dira. Irakasle bezala meriturik inork ez zien ukatuko baina hortik aurrera...

Matematikak, Lengua, Geografia eta horrelako asignaturak esplikatzerakoan ez zen ezeren oztoporik sortzen, lana egiten zuten, eginerazten zuten, eta punto. Baina historia edo erlijioa esplikatzerakoan besterik gertatzen zen. Espainiako Historian, besterik ez zen erakusten garai hartan, izaten ziren kontuak. Hartu erlijioa bizkarrezur bezala eta beronen inguruan mamitzen zuten guztia. Erromatargintzaren eskutik iritsi zitzaigun kristautasuna eta, jakina, salbazioa. Espainia salbatu egin behar zela eta don Pelayok egin omen zituen otoitz eta promesari eskerrak, errekonkista bideratu zen. Entzutekoak ziren Lepantori buruz esaten zizkigutenak. Ameriketan hizkuntza eta erlijioa eskaini ahal izan genien salbamenaren mezua barreiatuz. Eta jakina, azken gerratea ere testuinguru horretan lehengo ikuspegitik esplikatzen ziguten, honako zutabeak oinarritzat hartuz.

## DOGMA GISA

Franco, esaterako, Kaudilloa zen. Hitz honen esan nahiaz jabe gintezen zera aioten, herri baten estuasun larrienetan harrigarriro Jainkoak bidalitako buruzagia zela kaudilloa bere begiramendu eta arduraren adierazgarri. historian zehar bakan azaldu ohi diren pertsonaiak, erlijioaren eta herriaren defentsan ezinbestekoak. Egiptoko morrontzatik Israel atera zezan, esaterako, Moises bidali zien.

Diktadoreak, barka General Guztiz Gorenak esan nahi nuen, aldare aurrean orduak eta orduak egiten omen zituen otoitzean erabaki larriak hartu baino lehen. Probidentziak bidalitako gizon miresgarria zen hura, esku onetan zegoen Espainia, eta, nola ez, gu geu.

Gurutzadaren kontzetua ere zehatza eta nabarmena zen. Jainkoak Espainia bereziki maite zuen, eta Jesusen Bihotzaren debozioaz esaten zen guztia honen adierazgarri zen.

Guzti honek nahastu egin ohi gintuen.

Izan ere, eskolan gauza batzuk entzuten genituen arren, eta etxetan gehiegi hitzegiteko gogo haundirik sumatzen ez bazen ere, eskolan eta eskolaz kanpo entzuten genituenak ez zetozen bat. Erlijioaren alde borrokatu zenak herrian bi apaiza hilerazi ote zituen susmoa ere jaso genuen, han eta emen jazotzen genituen istorioak ere guztiz diferenteak ziren. Puzzle hark ez zuen enkajatzen, kromo desegokiak susmatzen genituen.. Eskolan gai horietaz esaten zenaz espabilatuenak, edo, errebelatzen zirela konturatzen ginen. Beste informazioren batzuk eskuratzeko zaletuz joan ginen. Eskola besteren esanetara zegoen.

## EUSKALTASUNAZ

Euskara eta euskaltasunaren arrastorik ere ez zen suamtzen eskolan gure garaian. Inoiz, ahalegin haundi bat eginaz bezala, zenbait baserritarri Kristau Ikasbidearen lezioa euskaraz entzuten zioten, baina hortik aurrera deus ez. San Inazioren martxa bera ere hor ikasi genuen ba, ondoko letra honekin: «Ignacio, sois valiente y General, de la Compañía Real, que Jesús con su nombre distinguió, la Legión de Loyola...». Ondo ezta? Fraileak kanpokoak ziren, Tellerialden ikasten zutenak oso giro itxian ikasten zuten fraileak ziren. Beste mundu bat zen.

Badakigu, jakin, egungo ikuspegiz eta gaurko giroan gauzak beste era batera ikusten direla. Ez dugu garai hartako fraileen jarrera juzgatu nahi izan. Haiek ere, ikusten denez, mendearen eta egoeraren esaneko ziren.

Dena den frenteaz kanpo, eta gerra ustez amaitu eta gero, erretagoardian, gertaera ugari eman zen, eta hemen aipatua gerraondoko esperientzia baten konstatazioa baino ez da izan.